

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Funtsezko baliabideak enpresak bere balio-proposameneko eskaintza garatzen, bezeroengana iristen eta diru-sarrerak sortzen ahalbidetzen dioten horiek dira. Beraz gure enpresa, aplikazio bat denez honako baliabideak beharrezkoak dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Aplikazio batez hitz egiten hari garez beharrezkoa izango litzake ekipamendu informatiko on bat edukitzea eta beraz baliabide fisikoak ukigarriak dira. Aplikazioa aurrera eramateko eta informazioa gorde dezagun esandako ekipamendu informatikoa beharrezkoa da. Baliabide ukiezin horren barruan ordenagailuak, softwarea, aplikazio eta datu-basea aurki dezakegu. Gainera aplikazioa martxan jartzeko eta diseinatzeko giza-baliabideak beharrezkoak dira. Pertsona horiek zehatzak eta eraginkorrak izan behar dira.

Gure aplikazioak arazo bat izango balu hori azkar konpontzeko eta aplikazioaren erritmo normalarekin jarraitzeko tekniko (giza-baliabide eta intelektualak) egokiak izan beharko genituzke. Azkenean zerbait gertatzekotan aplikazioaren erritmoa geldiaraziko zen eta ordu batzuk funtzionatzeari utziko lioke. Geldiune horrek diru galerak ekarriko lituzke. Esan behar dugu, aplikazioaren langileak (bazkideak direnak, gehi informatiko eta teknikari bat) baliabide ukiezinak direla, haiek gabe aplikazio ez litzateke aurrera aterako.

Enpesaren barruan bazkide bakoitzak bere gaitasunak kontuan hartuta, baliabide desberdinak eman dezakete eta horiek ukigarriagoak dira, baina ukiezina dena esfortzua eta lan egiteko asmoa da. Iñigok (produkzioa) eta informatikaria eta teknikoa informatikako eta webguneak diseinatzeko eta hobetzeko ezaguntzak dituzte; Adrianak (giza-baliabideak) buruzagitza eta antolaketarako abilezia; Alaznek (administrazioa) zehaztasuna; Aitorrek (Finantza saila) kontaktuak aurkitzeko gaitasuna; Txaber (marketina) sormena.

Azkenik, finantza-baliabidei dagokionez 5 inbertsore nagusien ekarpena (5000€-bakoitzeko), ukiezina da. Hasierako inbertsio hori haien aurrezkietatik hartu dute. Gainera helburua da aplikazioa herri desberdinen udaletxetan saltzea. (Komertzialen laguntzaz, probintzia bakoitzeko bat: Bizkai, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria). Bestela kirol desberdinen erakundeetara joko genuke eta azkenik enpresa pribatuetara. Azken hirurak baliabide ukigarriak dira.